

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “2015-EKO MAIATZAREN 24-KO BATZAR
NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK. HAUTESKUNDE
KONTABILITATEA”REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

Joan zen azaroaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuen 2015eko maiatzaren 24ko Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskundeei dagozkien hauteskunde gastuen kontabilitateari buruzko fiskalizazio txostena.

Txostenak ondorioztatu du hauteskunde horietara aurkeztutako alderdi politikoek zuzentasunez bete dutela indarreko legeria hauteskunde-gastu eta finantzaketa gaietan; halaber, ez dituzte gastuetarako finkatutako mugak gainditu eta fiskalizatua izan dadin hauteskunde-kontabilitatea Legeak agindutako epearen barruan aurkeztu dute.

Bestetara, Txostenak adierazi du udal hauteskundearen eta talde politikoen kontabilitatearen fiskalizazio lana Kontuen Epaitegiari dagokiola. Ezin egiaztatu izan dugu kontabilitate horietan hauteskunde hauei dagozkien gastuak barne hartu diren.